

Luzaideko hizkera adierazkorra. 1. Sakreak

PEIO KAMINO KAMINONDO*
PATXI SALABERRI ZARATIEGI**
JUAN JOSE ZUBIRI LUJANBIO***

Lan honen xedea Luzaideko hizkeran kausitzen ditugun sakreak edo «hizkuntza tzarrak» eta esalmoldeak edo «erraiteko manerak» azaltzea da. Ohartzen gara egungo ikasle gazteek, ikastola, institutu eta unibertsitatekoek ez dutela euskara behar bezainbesteko aietasun eta naturalitatearekin ibiltzen. Zernahi errateko berehala erdarara jotzen dute, Mitxelenak aipatzen zituen zakuak ez baitituzte –ez baititugu– berdin beterik: erdarazkoa aski horniturik duten bitartean, euskarazkoa erdi hutsik dute, gutienez. Arazoa batez ere gazteena da, baina ez horiena bakarrik, helduok ere anitzetan zailtasun handiak izaten ditugulako gauzak nahi dugun bezala adierazteko. Hau, du-darik gabe, gure hizkuntzaren egoera soziolinguistikoa isla eta ondorio da; gaztelaniaz edo frantsesez karrikan bereganatzen dena euskaraz ez da ia inon ikasten, hau denborarekin pobretuz eta urrituz joan baita, auzo hizkeren eraginez.

Garbi dakusagu hona dakartzagunak partikulazki Luzaiden eta Garazin erabiltzen direla, baina uste dugu forma egokia emanaz gero egungo euskara batuan ere ibiltzen ahal direla, gehienak segurik. Gure irudiko bidea hauxe baita: lekuan lekuko hizkeren aberastasunak baliatzea hizkuntza estandarra osatzeko, ñabarduraz eta adierazkortasunez betetzeko.

Osatze eta betetze hau zenbaitek egiten duten bezala erranairuak asmatuz eta ezdeusetik sortuz egin daiteke, hau baita ezbairik gabe biderik errazena, baina gu-

* Luzaideko euskaltzalea.

** Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

*** Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

re irudiz duguna bildu behar da lehenik, eta honetarako ikerketa baitezpadako dugu. Badakigu bigarren bide hau malkarragoa eta dorpeagoa dela, baina, erran bezala, uste dugu hori dela lehenik ibili behar dena. Gero, bigarren urrats batean, gure ikerketek hutsune guztiak betetzen ez badituzte, idazleek eta euskalgintzan ari direnek ditugun behar guztiak asetzen ez badituzte, orduan bai, hutsarte horiek nola bete pentsatu beharko dugu, beharrezkoa bada forma berriak asmatuz.

Artikulu honetan ez gara lotuko egungo hiztun gazteek egiten dituzten hutsak aztertzeari, nahiz hemen ere baden zer erran. Aztertuko ez ditugun puntuen artean ondoko hauek aipa daitezke:

- Sandhiak, soinu elkarketak behar bezala ez egitea.
- Yeismoa: *dago bigarren mayan* ‘bigarren mailan dago’.
- Ergatiboa ahanztea.
- Partitiboarekin aditza pluralean ezartzea: *ez daudela libururik, frogarik ez ditu...*
- Prolatiboaren ordeztu *bezala, gisa* eta beste paratzea.
- Aditzaren sail nahasketa: *horma baten kontra jo zen, soldaduei mozkortu egin zien...*
- *Bukatutak daude*-ren modukoak.
- *Egin*-en erabilera makur gehiegizkoa.
- *Egon* eta *ari izan* nahastea (*lanean nago...*).
- Nominalizazioak gaizki egitea.
- *Ba* baieztatzailea behar ez denean sartzea.
- Konpletibo / erlatibo nahasketa: *Davidson, dela amerikar konpania batekoa; dira emakume batzuk tea ematen dutela* ‘tea ematen duten emakumeak dira’...
- Bihurkaria ez ibiltzea: *bota zen leihotik, ikusi zen ispiluan...*
- *Ere (bai), baita ere*-ren erabilera okerra.
- Hitzen ordenatze makurra: *da gizon bat, zen konde bat, salatu duena dagoela kanpamentuan...*
- Hiztegi kontuak: *berdina* ‘gauza bera’, *hobe* ‘hobeki’...

Ezaguna da eta franko aspaldikoa euskarak sakrerik ez duela dioen mitoia. Hau, bistan denez, ezin da inola ere onartu, ikusiko dugun bezala irain eta biraoak eguneroko ogia baitira euskaldun purren artean. Honek ez du erran nahi, halarik ere, erdarazko sakreak euskaraz mintzatzean ibiltzen ez direla, horrelako hitz eta sintagma itsaskorrak kontino, etengabe sartzen baitzaizkigu leku guzietarik. Hemen ez dugu sakrea zer den definitzen hasteko asmorik; zernahi gisaz, uste dugu Agirre Asteasukoa motz gelditzen dela biraoaz hau diotenean (*Erakusaldiak*, 2, 30):

Birauaren izenez aditzen degu geienetan izketa bat, zeñarekin adirazten duan batek, opa diola norbaiti gaitzen bat. Opa dan gaitza txikia bada, txikia izango da egiten dan bekatua ere, baña andia, opa bada gaitz andia.

Biraoaren adibidetzat, besteak beste, hauek dakartza Agirrek: *ez aldin utziko amak guingac jaten* ‘ez ahal din utziko amak gindak jaten!’, *Itoko al aiz* ‘itoko ahal haiz!’, *chimista gaiztoc puscatuco al zaitu* ‘tximista gaiztok puskatuko ahal zaitu!’. Hauetaz kanpo beste bati edo beste batzuei zuzentzen zaizkien laidozko hitzak eta esaerak ere sartzen dira, gure irudiko, sakreetan, hau da, iraingarriak diren hitz eta itzuliak, nahiz denek ez duten gisa berean iraintzen eta beheratzen.

Hizkuntza tzarrak ikustera igaro baino lehen, erran behar dugu badela sakrea osatzeko, areagotzeko, indartzeko bide bat baino gehiago, normalean hizak gehituz aitzinetik, gibelatik edo bi aldeetarik. Konparazione *aluia!* [alúja] ‘alua’, ‘urdea’ hartzen badugu, ondoko konbinazio hauek guztiak egin daitezke: *alúja!* / *urdé alúja!* / *álu zárra!* / *álu zár zikína!* / *álu zikína!* / *urdé álu zikína (hi)* / *urdé álu zár zikína!* / *alúja alájna!* / *alúja alájn alúja!* / *alúja ezbértzja!* / *álu háyndja (hi)* / *álu háyndi zikína!* / *úrde álu háyndi zikína.*

Guk Luzaiden kausitu ditugun sakreak ondoko hauek dira:

Ahoandi

Ahoáyndi ‘aho handia’, ‘ahoberoa’: *zé ahoáyndja hízan!* Hau *Espantuaundi*-ren kidea da.

Alain

Alájn indartzaile hutsa da: *urdía alájna!*, *urdía alájn urdía!*, *zérnja alájna!*, *zérnja alájn zérnja!* Edozein sakrekin ibil daiteke. Etxebarnek ere badarabil (1989: 71-72); ikus «mukuzu» sarrera.

Alimale

Alimále ‘arrunt handia’ da normalean, baina sakreetan ‘tresna (pertsonez mintzatzerakoan)’ adiera hartzen du: *alimále déurrja úxu hóri!* Beherago ikusiko dugun *errekaitu*-ren modukoa da hau. Manezaundik (1990: 34) ‘arrunt handia’ adieraz ibiltzen du, baina ez, dakigula, juramentutako: «Bainan, anartean, harramantzak yendea bilharazten du, eta multzoaren artetik agertzen da mutiko alimale bat, ukhondoka bidea idekiz, eta Gaxuxari erraiten dako (...)». Duhauk (2003: 395) *ze animalia!* biltzen du.

Arima beltza

Arima béltza ‘gaizto errepikatua’: *arima béltzbat úxu hóri!*

Astaña

Astaña ‘astemea’. Manezaundik ere (1990: 84) badarabil bere idazkietan: «Eta emaztekoa hipaka eta ahuenka ari zelarik “herritar” batek erraiten dako, “Debru astaña, mendikoak ez gitun hain pulloak”». Etxamendik ere ibiltzen du sakre hau (1988: 44): «Atso astaña zozo horrek hara nolako briganta formatu dien».

Astapito

Astapíto ‘astoa’, ‘astapotroa’ da: *astapítwa!*. Anitz ibiltzen den sakrea da hau, kide dituen *Astopullo* eta *Astoziri* baino aise gehiago: *ze astapítwa hízn!* / *urdé astapítwa!* / *astapíto zikína!* / *astapíto zárra!* / *astapíto zár zikína!* / *urdé astapíto zikína!* / *urdé astapíto zár zikína!* / *astapítwa alájna!* / *astapítwa alájn astapítwa!* / *astapíto háyndja!* Etxamendik (1988) ibiltzen du: «Beha’zok astapito horri!» (84. or.), «Ixil ziizte! Ixil hadi! Kuxe! Zakur astapito hookin ez da jeus entzuten» (139. or.), «Hizan bezalako astapitua!», «Benatek ee astapitua ez besteena behar du ba izan!» (151. or.).

Astopullo

Astopúllo ‘astapittoa’. Cf. Manezaundiren adibide hauek: «Asto pullo bat bezala, ilunbetan bizi hiz, gaizo Beñat» (Irigarai, 1958: 69), «Asto pullo bat hiz, bethi aphotzarra bezala zilotik ez urrundu nahiz» (1990: 48).

Astoziri

Astozíri ‘astapittoa’: *zé astozírja hizán!*

Atrebitu

Atrebitu ‘lotsagabea’, ‘ausarta’, ‘frikuna’: *urde atrebítu zikína hí!* Etxamendik ere badarabil (1988: 35): «Beha’zok huni! Atrebitia!!!». Salaberri Ibarrolakoak (1856: 19) ‘hardi, impertinent’ adiera ematen dio.

Bandil

Bandíl ‘alferra’, ‘bizitze txarrekoa’. Salaberri Ibarrolakoak (1856: 23) *bandit* ‘bandit’ biltzen du; Manezaundi luzaidarrak etsenplu hauek ditu, besteak beste: «Bestea da, lanpide ezagaturik gabeko gizon bat, abila eta ernea, baina bandila. Ez da laborari, ez da hargina, ez da zurgina, ez du etxerik ere, eta gauak iragaiten ditu barruki edo aterbe batean» (1990: 40), «Azkenian asto bandil eta afer hura etzan zen, edo hobeki erraiteko, belhaunikatu» (ibid., 200). Etxamendik ere badarabil (1988: 116): «Ez zakala nigarrrik in Zaaiztian, ez dik balio! Ze? Bandil tzar horrek dolu’in? Ez dik seurki mehexi! Urde kuskulla!».

Beharrizilo

Behárrizílo ‘belarri-zuloa’ da; sakretzat behin bakarrik aditu dugu: *urdé behárrizílo zikína!*

Botiga

Botíga-k ‘denda’ erran nahi du berez, baina juramentua delarik ‘ezdeusa’ adiera du; hau anitz ibiltzen da: *botíga!* / *urdé botíga* / *botíga zikína* / *botíga zárra* / *botíga zár zikína* / *urdé botíga zikína* / *urdé botíga zár zikína* / *botíga aláina* / *botíga aláin botíga* / *etxí jéustako báljo botíga zikín hórrek!* “ez du deus-tako balio ezdeus zikin horrek!”.

Bottiga

Bottíga ‘exdeuxa’.

Buruauñdi

Buruáũndi-k berez ‘buru handia duena’ adiera du, eta sakretzat ibil dai-teke: *urdé buruáũndja!*, *urdé buruáũndi zikína!*

Deurru

Deurrú, *Deurría* ‘deabrua’. Aldaera honen sorreraz ikus H. Gavel (*Éléments*, 221-222). Bakarrik doalarik ez da laidoztatzeko ibiltzen, harridura adierazteko baizik: *Deurría!* *Ze ajúta emán dán zérri zikín hórrek!* “Arraioa,

zer kolpea eman didan zerri zikin horrek!»). Manezaundik (1990: 29) *debria* ibiltzen du: «Gizona! Hori uk, hori, xantza. Debria, hiri bethi dirua ahurta-ka. To, ene lau zikhiro horien eroslerik nihundik eztuk ageri». *Zé déyrru!* 'zer arraio!' ere ibiltzen da: *zé déyrru, jwáin gítxu hól-olá beztítwik!* Cf. Manezaundiren hau (1990: 42): «Buruak berotu ondoan, zer debru! bertze bi pinta yokatuz musian lotzen dira birazka»; Etxamendik ere berdintsu (1988: 80): «Xuk Kattin, heldu den primaderan esposatu behar duxu. Zer deurru! Bagituxu oono lau Olaberriko!».

Beste hauek ere ohikoak dira: *déyrrjén aríma!* / *déyrrjén bisája!* / *déyrrjén figúra!* / *déyrrjén kendén!* / *déyrrjén urdía!* / *déyrrú zahárria!* / *déyrrú zikína!* Hauetako bigarrena, *déyrrjén bisája* ('deabruen aurpegia' da berez), zerbait gaizki ateratzen zaizularik erraten da; ez da gogorra. Manezaundik ere ibiltzen du: «*Debrien arima*, Erramun, hori uk hori, garbitasuna, ez hemen bezala dena... ziztorrez bethea» (1990: 86); «Uhinak heltzen dituk, mendiak bezala, lerroka, aitzinatzen eta hurbiltzen. Bat bathian, burrunban leher eta zaphart egiten die harrokan bidia hurbil, eta izigarriko gohoratasunerat altxaturik, dena hagunez xurritua, uhasate batek bezala bazterrak estaltzen ditik. *Debrien bisaja!* Zé bustialdia yasan nien!» (1990: 87; etzana gurea da). Etxamendik (1988: 47) *deurrien fiura, deurrien fuña* darabiltza.

Aditzondo baten mailakatzailera ere izan daiteke: *fite déyrru jín zukán* "fite deabru etorri zuan". Bestalde, *ergela, mentsa* eta besteren indartzailatzat azaltzen denean gauzak aldatzen dira, orduan sakrearen zati baita, *urde* baino arinagoa izanagatik ere: *deyrrú...!* / *deyrrú ergelá!* / *deyrrú méntsa!* / *deyrrú pekazína!* / *deyrrú perréka* (ikus beheitiago) / *deyrrú zózwa!* Manezaundik (1990) beste hauek ere ibiltzen ditu: *debru fraximent lizuna!* (34), *debru erhoak* (46), *debru kasko gogorra* (71), *debru astaña* (84), *debru sorginak* (243), *debru fantesuntzia* (248). Etxamendik (1988: 21) *Deurru mentsa!* darabil.

Aditz batekin maiz agertzen da: *deyrría sardákjon!* / *deyrría sartúja!* / *deyrría sarbalákjo!* 'deabrua sartuko balitzaio!' / *deyrría sarbalákite* 'deabrua sartuko balitzaie!' Manezaundik ere baditu hauen modukoak: «Debriek sardakio! holako behi ederrak fite izain ditik frango erosle; zortzi ehun liberaz goiti balio dik ba» (1990: 27); «Debriek sardakio! ez liteke ase gure phentzeta-koekin, dio Pellok» (ibid., 57). Etxamendik (1988: 42) orobat: «Hiru mila deurriak sar balazkio! So'ik urde hoon planta!».

Batzuetan artikuludun partizipioarekin kausitzen dugu: *deyrriek eremána* 'deabruak eramana' / *deyrriek hártja izán* / *deyrriek jwána izán*. Lehena *deyrría sartúja*-ren iruditsua da; bigarrena eta hirugarrena antzekoak dira eta beste norbaitek zozokeria egiten duelarik erabiltzen dira, batuko «burutik egin»-en antzeko adieraz: *deyrriek hártja hiza?* 'burutik egin al duk?', *deyrriek jwának zízteà?* 'burutik egin al duzue?'. Etxamendik (1988) ere erabiltzen ditu honelakoak: «Baa! Deurriek juanik da ba besteñez! —erran zuen amak» (31), «Deurriek hartia hiza Gilen? Uai saldu beha'uk hua! Gizona! Uai tuk preziuak hunak merkatian» (92), «Deurriek juana! Ba to azkenian leher in beza! Ukain duk behorra» (96).

Hurrengo hauek ere adiztunak dira: *deyrría ziók Iruñeat jwáitja* "deabrua zaidak Iruñera joatea", "asko izorratzen dit Iruñera joateak" / *Péjori deyrría*

¹ Puntu hauek erran nahi dute juramentu zenbait ezabatu dela, baina hiztunaren gogoan dagoela.

zjakók góizeko sejóntan jeikítzja “Peiori deabrua zaiok goizeko seietan jaikitzea”, “Peiok gorrotoa dio goizeko seietan jaikitzeari”.

Bada beste itzuli bat franko ibiltzen dena, ‘arraioak ez baitu’ edo erran nahi duena: *deurriak ezpaítú!* (bat denean), *deurriek ezpaüté!* (bat baino gehiago direnean): *kásiko íxi bá, deurriak ezpaítú!* “ikasiko du, bai, nahitaez, ez baitu beste erremediorik”, *ínen díxje bá lána, deurriek ezpaüté!* “lana egin beharko dute, bai, hobe dute”. Cf. Etxamendiren hau (1988: 108): «Ez deeiát salduko ustel andana horri! Gilenek jeusik ez iten, Gilenek etxia errekaat ereman, Gilenek etxia jan? –Eta nigarra jauzi zitzakon– Ez ez! Ez ez! Deurriek ez ba’ute! Ez tie irri-ik i-nen! la!».

Bestalde, ohikoak dira Luzaiden honelakoak: *zé déyrru pásten dá hémen?, zé míla déyrru pásten dá hémen?* Gutiago hauen gisakoak diren *zé demóntre pásten dá hémen?, zé demónjo pásten dá hémen?, zé míla demónjo pásten dá hémen?* Manezaundik ere badu honelakoren bat: «Atx! Pello, ez dikiat zer debru dutan lepo huntan, arras nekez higitzen ahal diat buria» (1990: 29).

Ergel

Ergéla ‘zozoa’: *ergéla!* / *urdé ergéla!* / *urdé ergél zikína!* Ikus «ments» sarre-ra.

Errekaitu

Errekáitu berez ‘tresna’, ‘lanabesa’ da eta *tresna*-k berak bezala (ikus sarre-ra hau) nolabaiteko adiera txarra hartu du: *zé errekáítja hizán (besténaz)!* “!Qué elemento estás hecho!”; *errekáitu húna úxu hóri!* Ikus *alimale* sarrera. Manezaundiren bi aipu hauetako lehenean (1990: 79-80) ‘tresna’, ‘lanabesa’ da, eta bigarrenean (Irigarai, 1958: 69) sakre arina: «Kobre puskak, itziak, haixturrak, trukesak, hari burdina, mailuak, marteiluak, burdin-xuria, beruna, eta ungidia. Nik dakita zonbat errekaitu!», «Ez, ez diat adituko holako erdeinuak, eta ikusiko die adixkideek ez nizala pikaren azken umia, ez eta ere irri egiteko errekaitu bat, tetela, ergela, edo mentsa, bainan gizon bat haidorra, eta buru bipilekoa».

Errepikatu

Errèpikátu-k berez batuan duen adiera bera du Luzaiden, baina sakreetan ere erabil daiteke, hurbileko erranahiarekin: *gáixto errepikátia*. Satrustegik (1963-64: 264) ‘malo redomado’ itzultzen du; ikus «purifikatu».

Espantuaundi

Espántu hitz normala da Garaziko herrian, ‘harrandia’-ren antzeko adieraz: *zé espántjak ibíltzen tín hórrek!* Salaberri Ibarrolakoak (1956: 57) ‘vante-rie’ adiera ematen dio. Cf. Manezaundiren hau (1990: 69): «...kausitzen dute norbait, noiztenka, hiri haundi batian izan berria, espantu gaitzetan ari dena haundikeriak kondatzen, hau eta hura ikhusi dituela, eta denak hari so daudenak tetelduak», edo beste hau: «- Debrien arima! Nahi dukana izanikan ere, hi beti kexu hiz, Manez. / - Ba, hori atsaldian hiauk ikusiko uk, Pello; etzakala espantu haundirik in. Oraiko egunetan ustegabe gerthatzen ez

denik ez duk» (1990: 28). Juramentua, zernahi gisaz, *espantuáundi* ‘aho handia, ahoberoa’ da.

Ezbertzte

Ezbértzja ‘ez bestea’ da berez; sakreen indartzaitetako ibiltzen da: *kákamokórdwa ezbértzja!*

Ezdeus

Ezdéusa ‘ezereza, ezertarako on ez dena’: *ezdéusa! / ezdéusa aláina! / ezdéusa aláin ezdéusa!* Salaberri Ibarrolakoak (1856: 59) ‘vaurien’ adiera ematen dio.

Faltsu

Faltsu batuko ‘faltsua’, ‘(pertsone) zuria’ da; sakretako ere ibiltzen da: *fáltsja aláin fáltsja!* Ikus «urdea bezain faltsua» sarrera.

Frikun

Frikún ‘lotsagabea’, ‘ausarta’. *Zé frikúna dén gizon hóri!* Ikus «atrebitu» sarrera. Irudi du frantseseko *fripon* ‘errekaitua’, ‘tresna’ hitzetik atera dela; Lhandek (1926: 312) Harrieten *fripun* eta Hiribarrenen *frikun* biltzen ditu hiztegian.

Fuin

Fúña animalia da, lepazuria, *fouine* frantsesez, baina jendearendako ere erraten da, ‘gaiztoa’ edo adieraz: *zé fúña dén maztéki hóri!* Cf. Etxamendiren hau (1988): «Alo! Ze fuña xu! So’ik horri! Bana; nehok ez xitua ikusi?» (35), «Ba, egun ez duk eskapuik ez deurrien fuña!» (47).

Golatu

Guk *urdé golátu zikína hí!* sakrean aditu dugu; *gólo* ardien eritasuna da, paparrekoa (ikus Salaberri Ibarrolakoa [1856: 72] eta Lhande [1926: 375]).

Hail

Háil ‘habil’ sakre zenbaiten osagarritzat, hastapentzat ibiltzen da, ‘hoa’ adierarekin: *háil zakúrraïn púrdira* “hoa zakurraren ipurdira!” / *háil kakíteal* “hoa kaka egitera!” / *háil antzára ferrátzea!* “joan antzarak ferratzera!”. Manenzaundik ere badarabil: «debru franximent lizuna hail hemendik orai berian. Alaintso, norekin uste uk hizala?» (1990: 34).

Ihartu

Ihártu ‘ihartua’: *urdé ihártja! / ihártu zikína! / urdé ihártu zikína!* Cf. Amaiuurko Madalena Inda zenari aditutako *gáizto txár inértu orí!*

Kabron

Kabrón ‘alua’: *kabrón zikína! / urdé kabróna! / urdé kabrón zikína!*

Kaka

Káka, kakála ‘kaka’, ‘kaka dela’, ‘kaka izan dadila’: *kakála hire!*, *káka déla hire!* / *káka déla hire tó, kakála hire tó!* ‘kaka dela hire’, hau da, ‘kaka izan dadila horetako’. *Káka déla háren, kakála háren, káka déla zjén, kakála zjén...* ere erran daiteke. Duhauk (2003: 401) forma hauek bildu ditu Beskoitzen: *káka hire!*, *káka hietzat!*, *kakaala harrentzat!*

Kaka zahar

Káka zahárra!

Kakamokordo

Kakamokórdwa! / *kákamokórdwa ezbértzja!* / *kákamokórdo zárra!* / *kákamokórdo zár zikína!* / *urdé kákamokórdo zárra!* / *urdé kákamokórdo zár zikína!* / *urdé kákamokórdo zikína!* / *kákamokórdwa alájn kákamokórdwa!* / *kákamokórdwa alájna!* Duhauk (2003: 401) *kaka mokhordo harrentzat!* biltzen du.

Kakazu

Kakazúia ‘kakazua’: *kakazúja!* / *urdé kakazúja!* / *kakazúja alájna!* / *kakazúja alájn kakazúja!* Salaberri Ibarrolakoak (1856: 101) *kakazu* ‘qui a de la merde’ biltzen du.

Kasko harro, kasko(a) harrotu

Guk Luzaiden (*kásko*) *harrótu* ‘txorakeriak egiten hasi’ adieraz aditu dugu, ez juramentutako: *zér xirá, (káskwa) harrótzen hájsa?* Manezaundik bitan darabil: «Damugarri da urguluntzi kasko harro zonbaitek egiten dutena» (1990: 230); «Ohoit adi hitaz, urde kasko harroa» (ibid., 248).

Kokin

Kokín frantseseko *coquin* bera da, gaztelaniaz ‘pillo’, ‘tunante’ erran nahi duena.

Leher eta zapart

Lehér eta zápart! ‘arranopola!’ / *lehér eta zápart ín: lehér eta zápart ín baléza úrde zikín ustél hórrek!* *Leherrín eta zapàrtín* adierakideak dira. Cf. Manezaundiren hau (1990: 319): «Eta zer atsalaskariak! Sagarrak, udareak, esnea, ezta, nik dakita zonbat dohain eta halere ezin asez gure klika. Oraiko adinean leher eta zapart egiteko baginuke holako hazkurri erdiarekin gure sabelean».

Leherrin

Leherrín ‘leher egin’: *lehér ín bezá, tó!* ‘leher egin beza’, ‘izorra dadila’. Cf. Etxamendiren hau (1988: 96): «Deurriek juana! Ba to azkenian leher in beza!».

Lipia bezain (t)zarra

Lípja bezájn (t)zárra ‘armiarma bezain gaiztoa’: *lípja bezájn tzárra úxu urdé zikín hóri!*

Lolo

Lólo haur hizkeran ‘esnea’ da Luzaiden, baina sakretako ibiltzen denean ‘zozoa’-ren parekoa da: *zé lólwa den gúre áuzo hóri!* Ez dakigu gaztelaniaz ibiltzen den *lelo*-tik atera denetz. Duhauk (2003: 393) *lelua* biltzen du Beskoitzen; Lhandek (1926: 672, 686) *lele* eta *lolo* dakartza, ‘sot’, ‘stupide’ adierarekin. Salaberri Ibarrolakoak dio (1856: 118) *lolo* arrain ttipi baten izena dela.

Madarikatu

Madarikátja. Bakarrik ez dugu aditu, baina bai beste indartzaile batzuekin batean: *urdé madarikátu zikína!* Cf. Manezaundiren hau (1990: 34): «To, Yuanes, hetiko madarikatu gizontto harek etzikiat zer uste nintzala iduri zitzaikon bere lizunkeriekin». Etxamendik ere badarabil (1988: 117): «Nik eniakoian saltzeik galditen, aferman bakarrik. Bana madarikatu hak uste zikan, hola jokatur xerbitxu inen zaala!».

Ments

Méntsá ‘ergela’, ‘zozoa’ da Luzaiden ez ‘falta’, nahiz bi kontzeptu hauek loturik dauden, bistan denez: *méntsá!* / *urdé méntsá!* Manezaundik usu ibiltzen du *ments*; ikus pasarteño hau (1969: 40): «Bat, zozoa, buru haundi batekin, kuia alimale baten heinekoa, erdi mentsa erdi ergela, urratsak herremel eta hurri, lepo gainian duen aztak nekatzen duela ibiltzeko iduri». Etxamendik ere badarabil (1988: 21): «Deurru mentsa! Zer mentsa xiren!».

Menskila

Berez *mentsa*-ren txikigarria da *menskila*. Sakretako ibiltzen da: *deurrú menskila!* Etxamendik ere (1988: 98) badarabil: «Deurru menskila hi, hi! Betti berdin deurria hiz gio! So izie madarikatu huni!».

Mukuzu

Mukuzúja! ‘mukizua!’. Cf. Etxebarneren hau (1989: 71-72; etzana gurea da): «Bainan gizona edana izanki eta huna nun mandotik jautsi eta hasten zautan *alain mukuzi zikinka*, joan nindadin handik nihaun ardiekin nahi nuen lekura. Bere makila eskuan zuen eta huna nun tiratzen dautan ukaldi bat burutik beheiti».

Nahasi

Nahási ‘nahaslea, nahastailea’: *úrde nahási zikína!* / *nahási ustelá!* / *úrde nahási zárra!* Manezaundik, berriz, *nahasle* ibiltzen du, sekulan ez *nahasi*, adiera honekin jakina: «Bakotxak balinbaluke lurpuska bat, ez besteei ebatsia oraiko egunetan gizon nahasle eta alferrek nahi duten bezala, bainan bere izerdiarekin ardietsia, bakhe ederrian bizi litake mundua, negu hitsari buru eginez errexki, gure menditarren ikhusbide araberan» (1990: 321). Salaberri Ibarrolakoak (1856: 131) Luzaideko adiera bera ematen dio.

Ñaukela

Ñaukela erraten da; guk *urdé ñaukela!* aditu dugu. Lhandek (1926: 783) ‘fricoteur’ adiera ematen dio.

Ohoïn

Ohóina ‘lapurra’ da eta sakretako ibil daiteke: *urdé ohóin zikína!*

Perreka

Perréka ‘ergela’ da: *perréka / deurrú perréka*. Lhanderen arabera (1926: 857) ‘piltzarra’, ‘baliorik ez duena’ ‘ospe txarreko pertsona’ adiera du; hiztegi-gile honen ustez biarneseko *perrec*-etik heldu da.

Pika bezain ergela

Pika bezáin ergéla ‘arrunt ergela’: *Pika bezáin ergéla uxú néska hóri*.

Pika bezain ohoina

Pika bezáin ohóina ‘arrunt ohoina’. Cf. Etxamendiren hau (1987: 30): «Urde ozpina madarikatu zikinak! Gilenek eta Gilenteiko Gehazinak eremana ditixie ollo ta arrultze, oro! Pika bezain ohoinak tuxu ba ama seme horiek!». Frantsesez «voleur comme une pie» erraten da.

Pikabuztan

Pikabuztán-ek ‘ergela’ erran nahi du: *úrde pikabuztán zikína!* Lhandek (1926: 865) ‘queue de pie’ eta ‘frivole’ adierak ematen dizkio hitz honi.

Pikalaport

Pikalapórt. Berez buru handia duen txori baten izena da Salaberri Ibarrolakoaren arabera (1956: 144) (‘antza txoria’, ‘suge txoria’, Lhanderen arabera, 1926: 865); cf. Manezaundiren hau (1990: 198): «Usoak, biligarroak, uzkina-
zoak, pikalaportak, zozuak, apezxoriak, papogorriak, hots, hegaztin mota guzietarik milaka eta milaka iraganen dira errekarari goiti (...)». Sakretzat ibiltzen denean ‘ergela’, ‘pikabuztana’ adiera du. Lhanderen arabera (1926: 865) “femme d’humeur acre et querelleuse” da.

Pilda

Pilda: *hóri maztéki pilda!* Azkuek bere hiztegian ‘colgajo de ropa’, ‘lambeau de vêtement’ eta ‘mujer de vida airada’, ‘rouleuse, femme de vie légère’ adierak ematen dizkio *filda*-ri. Lhandek (1926: 861) *philda* ‘terme de mépris, homme ou femme de rien’ dakar; *filda* ere jasotzen du eta Azkueren adiera berak ematen dizkio. Izetak dio (1996: 84) *filde* ‘arropa zahar eta hondatua’ eta ‘traketsa, zitala’ dela; bigarren erranahia dela-eta «mutiko filde orrek eztu gauz onik» adibidea dakar.

Pito

Pítwa erdarazko ‘jilipollas’ edo da. Lhandek (1926: 873) ‘membre viril’ eta ‘insulte grossière’ adierak ematen dizkio; «cf. gasc. *Pite*» gaineratzen du, hitzaren etorkia gaskoian bilatu beharra dela iradokiz.

Bakarrik erabil daiteke edo lagundurik: *pítwa!* / *píto zikína!* / *píto zárra!* / *píto zár zikína!* / *pítwa aláina!* / *pítwa aláin pítwa!* / *pítwa ezbértzja!* / *urdé pítwa!* / *urdé píto zikína!* / *urdé píto zár zikína!*

Hauetaz landara bada *píto* osagaitako duen bi zatiko juramentua: lehen zatian egitura finkoa du, baina berez biraoa dena aldatu egin daiteke, nahiz ardurenik menturaz *pítwa* aditzen den; bigarreanean, berriz, iraindu eta laidoztatu nahi den pertsonaren akats zenbait aipatzen da. Egitura hau da: *zé pítwa iten dukán / dín / duzjén / dutén (besténaz) iháyñ búru háyñdi horrékin!* Parentesi artean agertzen den *besténaz* hori kendu-utzizkoa da. Erran bezala, *pítwa* da ohikoena, baina, honen partez, *ménsta* eta *ustéla* ere aditu ditugu, eta segur aski edozein sakrerekin ibiltzen dateke, gai honetan erabateko segurtasunik ez badugu ere. Bigarren zatian, berriz, *búru*-ren ordainez, *áho*, *be-hárrri*, *púrđi*, *sudúr* eta beste sar daitezke, nabarmendu nahi den gorputz atalaren arabera. Adjektiboa ere alda daiteke. Hona hemen adibide batzuk: *zé pítwa iten dukán (besténaz) iháyñ púrđi háyñdi horrékin!* / *zé pítwa iten duzjén (besténaz) zjáyñ sudúr háyñdi horrékin!* / *zé pítwa iten dutén (besténaz) béren irri zózo horrékin!* / *zé ménsta iten dukán (besténaz) iháyñ belárrri lúze horjékin!* / *zé ustéla iten dukán (besténaz) iháyñ ahó makúr horrékin!* Duhauk (2003: 400) Beskoitzen bildu duen *ze sakatrapuia iten diina!* honen modukoa da, ikusten denez *pítoa*-ren ordainez *sakatrapuia* badu ere.

Pitoti

Pitótja-k 'pítoa' adiera du: *pitótja hí!*, *zé pitótja hizán!*

Pullo

Púllo berez 'astokoa' da, baina sakretako ibiltzen delarik 'pertsonea astoa' adierazten du: *zé púllwa dén hóri!* Ikus *Astaña* eta *Astopullo* sarrerak. Cf. Manezaundiren pasarteño hau (1990: 70): «- Eta zertako da hori? zioten guziek. / -Zertako!... gaizo pulloak!... Tresna sorgin horrekin hemen giren guziek, ostatu huntaik beretik, Bones-airesen, San Frantsiskon edo Paris'en arrabita soinulari bat edo kantuz ala solasian ari direnak entzuten ahal ditugu, he mentxe berian izan balite bezal-bezala...».

Purdiaundi

Purdjáyñdi 'ipurdi handia'; lagundurik egon ohi da: *urdé purdjáyñdi zikína!*

Purifikatu

Purifikátu: *zár purifikátia úxu hóri* 'gaizto baino gaiztoagoa da hori'. Ikus *aríma béltza* sarrera.

Putá

Púta (gizon nahiz emazteki): *púta!* / *urdé púta!* / *púta zikína!* / *púta zárra!* / *púta zár zikína!* / *urdé púta zár zikína!* / *urdé púta zikína!* Etxamendik ere badarabil (1988: 46): «Urde puta! –Xanek–. Giila eri ba giila eri-ik! Horrek? Nik bezala! To, beha zok nola jaten dien!».

Putrun

Putrún 'koldarra'. Aski arina da berez, baina indartzaileek irain zama handiagoa eman diezaiokete: *urdé putrún zikína!* Manezaundik *pultrun* darabil

(1990: 93) : «Ai urde pultrun tzarra, emaztiak baño izikorra(goa) hiza?». Lhandek (1926: 894) *putrun* biltzen du, Luzaiden ibiltzen den bera; frantse-seko *poltron* ‘lâche’, ‘onne’ hitzetik hartua dela dirudi. Baztanen ere ibiltzen da, ‘koldarra’, ‘uzkurra’ adieraz (Izeta, 1996: 152).

Putruska

Putrúska: úrde putrúska zárra! Lhandek (1926: 894) ‘vil’, ‘minable’ adiera ematen dio.

Sudurraundi

Sùdurráundi-k ‘pertsonek sudur handia’, ‘sudur handiko pertsona’ adierazten du eta juramentutzat erabil daiteke: *urdé sudurráundi zikína!*

Sudursartu

Sùdursártja erdarazko ‘metete, entrometido’ da: *zé sùdursártjak ziztén zjék besténaz!*

Suntsitu

Suntsítu ‘xehatu’, ‘xehakatu’: *suntsítukojút!* Ikus *xintxirikátu* sarrera.

Tetel

Tetéla-k ‘ergela’ adiera du. Manezaundik (Irigarai, 1958: 69) ‘ergela’, ‘mentsa’ adierarekin edo ibiltzen du; *teteldu* ere badarabil idazle honek, ‘menstu, zozotu’ erranahiarekin. Ikus *ergela* eta *espantuaundi* sarrerak. Lhanderen arabera (1926: 960) *tetel* ‘zizaka mintzo dena’ da eta *tetele* ‘gaizki mintzo dena’ («qui articule mal»), eta hedaturaz ‘ergela, zozoa’ ere bai, ‘berritsua, elekaria’ ez ezik.

Tranpa

Tránpa ‘negozio zikinetan sartua dabilena’: *urdé tránpa zárra!* Irudi due-nez gaztelaniako *trampa* hitzak duen adierarekin (‘negozio zikina’) loturik dagoke. Cf. Juan Kruz Arrosagaraireren (Satrustegi, 1967: 113) bertso hau: «Aspaldian diferente / Dituzte kondutak, / Batzuek dira onest / Eta bertziak tranpak. / Estimaten ditut anitz / Azkeneko notak / jakitiaz tranperiak / Dituztela, ba, kulpak».

Trastu

Trástu ‘tresna’-edo da hau, gaztelaniako *trasto* bera. *Zé trástja dén étxe hór-tako mutikwa!* Duhauk *trestuía* biltzen du Beskoitzen (2003: 393).

Tripajoko

Trípajóko. Berez ongi jatea gustatzen zaiona da. Sakrea ere bada: *urdé trípajóko zikína!*

Tripaundi

Trípáundi berez ‘sabel handikoa’ eta ‘asko jatea gustuko duen pertsona’ da; juramentutzat ere ibiltzen da: *urdé tripáundi zárra!*

Tripustel

Tripustél. Berez ‘tripa ustelekoa’ da, baina sakretzat erabil daiteke: *urdé tripustél zarrá!* Lhandek ere biltzen du ‘faux bonhomme’, ‘faltsua’, ‘jatuna’, ‘tripontzia’ adierekin (1926: 979, 1019). Horretaz landa «*tripa ustel bat da, c’est un ami de la bonne chère, un ventre pourri*» adibidea ere jasotzen du.

Tupin

Tupín ‘eltze handia’ da. Jendearendako erraten da, sakre moduan edo; cf. beste alderdi batzuetako «kaikua». Cf., orobat, *atxétatupínak* “Luzaidoko inauteetako pertsonaiak. Bi gizon dira, bata emazteki arropetan beztiturik eta bestea ardi larru batekin”. *Atsoa eta tupina* bide da etimologia. Cf. Manezaundiren hau (1990: 328) «Bolanten sahetsetan doatzi *atxo* eta *tupinak, yauntzarrak*, metro bat eskuan, deneer izari hartzen, eta holako bertze yende irringarri, bai ta ere zaldizkoak soineko ederrekin».

Urde

Hau da zalantzarik gabe gehien ibiltzen dena, sakrea izateaz gainera bes-teen indartzaitetako ere ibil daitekeelako:

Urdé: urdé...! (esaldia bukatu gabe utziz) / *urdía!* / *urdé urdía!* / *urdé golá-tu zikína hí!* / *urdé zárra!* / *urdé zár zikína!* / *urdé zikína!* / *urdía alájna!* / *urdía alájn urdía!* / *urdé astapítwa!* / *urdé háyndja hí!* / *urdé kabróna!* / *urdé madarikátu zár zikína!* / *urdé madarikátu zikína!* / *urdé méntsa!* / *úrde nahásja!* / *úrde nahási zikína!* / *urdé pikalapórta* / *urdé pítwa hí!* / *urdé putrín zikína!* / *úrde putrúska zárra!* / *úrde ustéla!* / *úrde ustéldja* / *úrde zikíro buztán(a)!* (hau ez da batere gogorra) / *urdé zózwa!*

Manezaundik ere ibiltzen du: «Debrien arima! urde kaskoin tzar hura ene eskien artean banu, itho nezakek, to, erraiten zakon adixkide bati Gilenek» (1990: 47), «Ai urde zerria, hortarat yuan hiza Iruñerat?» (Irigarai, 1958: 71); «Ai urde zerri haundia!!! Hortako yuana hintzana Iruñerat?» (1990: 51), «urde zerriak, urde tresna tzarrak!!» (ibid., 68): «Urde gaixtakin tzarra! orai ikusiko duk nor nizan ni!» (ibid., 77), «Ai urde astua, ageri duk, ba, ehizala athera zilho huntaik!» (ibid., 86), «Ai urde pultrun tzarra, emaztiak baño izikorra[goa] hiza?» (sic, ibid., 93); «Ohoit adi hitaz, urde kasko harroa» (ibid., 248), «Tó, sekhulan ez nikan sinhetsiko zé heineraino harrotu den gaizo pullo hori. Ai, urde zorri-phiztia, noizbait nahi ez ditienak entzunen ditik, eta lehegarriko irriak inen ditiauk haren gain» (ibid., 249).

Etxamendik berriz (1988) hauek darabiltza: «Urde ozpina madarikatu zikinak!» (30), «Ba! Ze urdía hizan! Alegia ez jakin!» (97), «Ez zakala nigarrrik in Zaaiztian, ez dik balio! Ze? Bandil tzar horrek dolu’in? Ez dik seurki mehexi! Urde kuskulla!» (116).

Urdea bezain faltsua

Urdía bezájn fáłtsja ‘urdea bezain faltsua’: *urdía bezájn fáłtsjak túk hórjek!*

Urguluntzi

Urgulúntzi ‘harroputza’: *zé urgulúntzja dén mutíko hóri!* Cf. Manezaundiren hauek: «Damugarri da urguluntzi kasko harro zonbaitek egiten dutena» (1990: 230); «Hegoaldekoak bethi urguluntzi ohore goseak» (ibid., 301).

Ustel, usteldu

Ustél, ustéldu: zé gizón ustéla dén hóri!, zé gizón ustéldja dén hóri!, urdé ustéldu zikína! Cf. Etxamendiren (1988: 84) hau: «Urde ustela! Bere indarrak baliatzen duk. Algerian ikasi trükak baliatzen tik sudur makur horrek».

Xintxirikatu

Xintxirikátu: jó ta xintxirikátukojút! 'jo eta txiki-txiki eginen haut'. Ikus *suntsítu* sarrera. Cf. Manezaundiren hau (1990: 87): «Yinko maitia, phentsatzen nikan Beñat, soka hori hausten balinbada behere hartan, porroskatua, zintzirikatua bilduko hute, Erramun, saski bathian, haragi phusketan!!». Ikus, orobat, Etxamendiren beste hau (1988: 43): «Hauk komedia! Pikoaiterat juaiten gira, oh! bainan zeren ikusteko?! Pikotzea xintxirikatua! Adarrak puskilatuak, ostail eta aldaxkaz bai eta fruituz pea ihaurri. Norbaitek haga batez joka ehailia zuen zuhamua, eta adarrak eskuz tiraka erhauziak, nigarre-gingarria zen begibazka guzia».

Zakurrak jan

Zakúrrak ján: zakúrrak játen al dik hólako bizja! 'hau bizimodu petrala!'. M. J. Minaberrik (1998: 35) ere ibiltzen du: «A, la, la! –zion oilarrak–, Zakurrak jaten ahal du holako bizia! Denbora txar ala denbora eder, negu ala uda, hotz ala bero, beti kanpoan egon behar!».

Zar, tzar

Zárra, tzárra izán erraten da: *zé zárra dén hóri!* 'zer gaiztoa den hori!' / *gizón hóri bárne zarrékwa úxu* 'gizon hori benetan gaiztoa da' / *zár purifikátia úxu hóri* 'gaizto baino gaiztoagoa da hori'. Cf. *arima beltza*. Ikus orain arteko sakreetan agertu diren *zár* eta *tzár* guztiak. Etxamendik ere badarabil (1988): «Temuntzi tzar bat zela; berak nahi zituenak oro egiten zituela. Amak gastatzen zuela eta aita ez uzten semearen hezterat, emazte zozo harek» (16. or.), «Zaiztian, hi zinez gaztia hiz ba besteñez! Gilen zerria bezain tzarra'uk!» (26. or.), «Utz'ak, utz'ak othoi, utz'ak! Mehexi diena ziakok gertatzen Gileni. Tzarra ahitia' uk ustel hori. Ta lanjerosa... Mintzatzalia» (116. or.); «Nik hilak dira murru zori tzar batzu, sei aurtiki tut bi tiroz. Ollo bazkaat heldu dira zikin horiek» (146. or.).

Salaberrri Ibarrolakoak (1856: 177) *zar* biltzen du eta dio ardurako ize-nondoa dela, 'balio gutxikoa', 'zaharra', 'erabilia' adierazten duela; «*zar* est toujours un terme de mépris» erranez bukatzen du.

Zerri

Hau anitz ibiltzen da: *zérrja!* / *urdé zérrja!* / *urdé zérri zikína (hi)* / *urdé zérrri zár zikína!* / *zérri háündja hi!* / *zérri zárra!* / *zérri zár zikína* / *zérri zikína!* / *zérrja alájna* / *zérrja alájn zérrja!* Ikus «urde» sarrera. Etxamendik (1988) ere ibiltzen du: «Gaizo tupina! Gilen zerri kaka hark ebatsiko'ik!» (29).

Zikin, xikin

Hau bakarrik doanean iraina da (*zikína!*, *xikína!*) eta lagundurik dagoeanean besteen indartzailea (*madarikatu zikína!*, *urde zar zikína!*... Ikus gorago

aipatutakoak). Forma palatalizatua (*xikína*) ez da palatalizatugabea (*zikína*) bezain gogorra, baina ez dabilkio hagitz urrun. Guk *x*-dun aldaera haurrendako eta zakurrendako aditu dugu; *z*-duna, berriz, orokorra da. Etxamendik ibiltzen du (1988): «Pen'iten? –erran zuen Eiheraxarreko Batitak– eni ez diak pen'iten ez zikina! Kaskante zikin horrek pen'iten!» (116. or.).

Zozo

Zózwa 'tuntuna': *zózo háyндja hí!* Manezaundik ere badarabil: «Trufatzen ziren gaizo zozo horietarik, itsuki sinhesten dutenatarik atso beltzak, yats batian zaldizko, ximindegiari behiti sukaldetan sartzen direla» (1990: 66); «Gizona, zozoa hiza, edo? Aski duk hedatzea herrauts birbira bat ohearen zur xokoetan. Ez dituk gehiago agertuko... bi egunez bederen» (ibid., 333). Etxamendik ere ibiltzen du (1988: 16): «Temuntzi tzar bat zela; berak nahi zituenak oro egiten zituela. Amak gastatzen zuela eta aita ez uzten semearen hezterat, emazte zozo harek». Honekin batean *zozoska* ere badarabil Ezterenzubiko idazleak: «Gilentegirat jin zen mutiko tipito zozoska bat: Erramun, Gileen kusi bat, Gehazinaren ahizpa baten semea» (ibid., 71).

Ikusi ditugun sakre hauetan guztietan, indar emateko, gehienik ibiltzen direnak *urde* eta *zikin* dira, bakarka edo elkarrekin, hau da, eta ikusi dugun moduan, *urde* + *izenon doa*, *izenon doa* + *zikina* edo *urde* + *izenon doa* + *zikina*.

Honaino Luzaiden bildu ditugun juramentu edo biraoak; segurua da gehiago ere badirela, baina irakurleak oraingoz horrenbesterekin aski izan beharko du. Gero gerokoak.

BIBLIOGRAFIA

- AGIRRE, J. B. (1850): *Eracusaldia*, 2. alea, Tolosa.
- AZKUE, R. M. (1969 [1905]): *Diccionario Vasco-Español-Francés*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, bi ale.
- DUHAU, H. (2003): *Hasian Hasi. Beskoitzeko Euskara (Beskoitzeko Heskua)*, Euskal Kultur Erakundea, Donibane Lohizune.
- ETXAMENDI, E. (1988): *Gilentegiko Gilen*, Gipuzkoako Kutxa, Donostia.
- ETXEABARNE, E. (1989): *Erramun Harginaren Oroitzapenak*, Auspoa Liburutegia 198, Donostia.
- GAVEL, H. (1969 [1920]): *Éléments de Phonétique Basque*, RIEV, XII, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- IRIGARAI, A. (biltzailea) (1958): *Prosistas Navarros Contemporáneos en lengua Vasca / XX-garren Mendeko Nafarroako Euskal Idazlariak*, Nafarroako Foru Aldundia, Iruñea.
- IZETA, M. (1996): *Baztango Hiztegia*, Nafarroako Gobernua.
- LHANDE, P. (1926): *Dictionnaire Basque-Français*, Paris.
- MANEZAUNDI (E. Zubiri) (1990): *Artikulu bilduma*, Klasikoak 41, Eusko Jaurlaritza & Euskal Editoreen Elkarte, Bilbo; Rosa Miren Pagolak prestatu argitalpena.
- MINABERRI, M. (1998): *Marijane konta zan*, Elkarlanean, Donostia.
- SALABERRI IBARROLAKOA (1856): *Vocabulaire de mots basques bas-navarrais*, Baiona.
- SATRUSTEGI, J. M. (1963-64): "Vocabulario popular", *Euskera*, VIII-IX, 255-283.
- (1967): *Luzaideko kantiak*, Auspoa 65, Donostia.

LABURPENA

Artikulu honetan Luzaideko hizkera adierazkorraren alderdi bat, sakre, birao edo juramentuei dagokiena biltzera entseatu gara. Hango eta ingurutako idazle zenbaiten lanak ere baliatu ditugu. Gure asmoa da ondoko beste artikulu batean esamoldeen alderdia lantzea.

RESUMEN

En este artículo hemos intentando recoger una parte del habla expresiva de la localidad navarra de Luzaide / Valcarlos, concretamente la referente a los juramentos, tacos y maldiciones. Hemos utilizado también las obras de los escritores de la localidad y alrededores. Es nuestro propósito examinar la parte correspondiente a los modismos en un próximo trabajo.

RÉSUMÉ

Dans cet article nous avons essayé de recueillir une partie de la langue expressive de la localité navarraise de Luzaide/Valcarlos, notamment celle qui est relative aux jurements, gros mots et malédictions. Nous avons également utilisé les œuvres des écrivains de la localité et des alentours. Notre but est d'examiner la partie qui correspond aux idiotismes dans un prochain travail.

ASBSTRACT

In this article, we have attempted to collect part of the expressive speech used in the Navarran village of Luzaide/Valcarlos, more specifically swearwords, oaths and curses. The works of writers from the village and surrounding area are also used. We intend to examine idioms in a later article.